

## Balezteria eta baleak

Richard Sears ikusten den ehiztaria (Richard Sears jauna) berezi samarra da. Kanadako San Lorentzo golkoan gezia botatzen die bere balezta baleei, baina ez ditu hiltzen;



Richard Sears balezteriarik zetazoen azalen lagina hartzen du, poluzioak animaliangan dituen eraginak azter ditzaten.

bere helburua, izan ere, baleak aztertu eta gordetzea baita. Gezia, kautxuzko masa duen altzairuzko tutua da. Zetazoen azaleko lagina hartzen du horrela, eta gero Torontoko unibertsitatera toxikologi sailera bidaltzen du, han poluzioak animaliangan dituen eraginak azter ditzaten.

## Ikatzaeren etorkizuna

Oraindik ere munduan produzitzen den elektrizitatearen % 40, ikatza erreta ateratzen da. Egia da gaur egun zenbait herrialde industria-

lizatutan estimazio handirik ez duela, baina "ohe fluidotu eta presurizatu" izeneko teknika berriari esker berriz ere aurreko puntan egoteko aukera du ikatzak.

Suediako ASEA etxeak dioenez, erregaia aire-korrante batez konprimatu egiten da, eta zentral elektrikoan errendimendua % 45ekoa izan daiteke (beste edozein zentral termikotan baino handiagoa). Gainera atmosferara botatzen diren gasetako poluzioa % 90-95 txikiagoa izan daiteke.

## Biltegi erradioaktiboak Espainian

Spainiako zentral nuklearretako biltegietan gaur egun 1.306 tona hondakin erradioaktibo daude. Gainera hondakin horiek etengabe ari dira sortzen, eta oraingo produkzio-maila mantentzen bada, hemendik bi urtera hondakinentzako lekua faltako da.

## Itsas maila gora

Due la gutxi Nature zientzi aldizkariak argitaratu duenez, itsasoan maila urtero batezbeste 1,5 milimetro igotzen da.

Igoera ordea, klima epeltzeak bakarrik ez omen du eragiten. Gizakiak ere ba omen du horretan eraginik. Lurralde lehorretan izan ere, geruza freatikoetatik ura ateratzen da nekazaritzako lurraztatzeke. Horrela ateratako ura lurrindu eta laster itsasora joaten da. Oihan tropikala soil-tzea da beste arrazoi bat. Metro karratu oihanean 25 litro ur egoten dira, eta oihana luberri bihurtzen bada, ur hori lehenengo atmosferara eta laster itsasora joaten da.

## Intsektuak hiltzen dituen zuhaitza

Indian biopestizida natural bat produzitu nahi dute nim edo margosa (*Azadirachta indica*) izeneko arbola baten fruituak erabiliz. Zuhaitza 10-15 metro altukoa izaten da eta Birmania zein Indiakoa da. Gaur egun Asia eta Afrikako lurralde lehorrak kolonizatzen ari da eta normalean su-egur edo eraikuntzarako zur gisa aprobetxatzen da. Zuhaitzak horrez gain ordea, olio askoko fruituak ditu, eta horiek dira, hain zuzen, orain industrian erabili nahi direnak. Fruituek izan ere, 200 intsektu-espezie hiltzen dituen *azadirachtina* izeneko intsektizida indartsua dute.



Nim edo margosa izeneko arbolen fruituek 200 intsektu-espezie hiltzen dituen *azadirachtina* izeneko intsektizida indartsua dute.

Argitu beharra dago ordea, intsektizida horrek ugaztunei, hegaztiei eta erleei zein beste zenbait intsektu mesedegarriri ez diela inolako kalterik egiten. Intsektizida natural hau fabrikatzeko industria Indiako hegoaldean Karnataka estatuko Tumkur hirian egingo dute. Egunero 20 tona fruitu erabiliko ditu.

## Ongarri naturala

Baraztetan ongarri kimikorik erabili nahi ez dutenentzat, enpresa britainiar batek Ocean Supermix izeneko ongarri naturala sortu du. Karramarroen oskolez eta potasaz egina da. Bela-



rrak eta azak hazteko oso babestaile ona da. Karramarroen oskolak kitina du eta substantzia horrek belarraren zein azaren gaitz edo bizkarroien kontrako organismoei laguntzen die. Ongarri natural berri hau ez da disolbatzen eta landareei hazkuntzan zehar denbora luzez laguntzen die.

### Hegaztiak eta poluzioa

Mundu guztian 9.600 hegazti-espezie inguru daude sailkaturik eta horietan hirutik bi ingurugiroko poluzioa jasaten ari da. Espezie horietako % 10 betiko galtzeko arriskuan dira gainera, *Wordwatch* aldizkariak salatu duenez. Poluzio kimikoaz habitat naturalak kaltetzeak sortu du arrisku hori.


Mundu guztian 9.600 hegazti espezie inguru daude sailkaturik eta horietan hirutik bi ingurugiroko poluzioa jasaten ari da.

J.R. Alhartzza



### Aza erraldoia

Estatu Batuetako eta Frantziako ikerketa-laborategi batzuetako saiakuntzen bidez lortu dute irudiko aza erraldoi hori. Manipulazio genetikoz barazki batzuk aldatzen ari dira, jendea elikatzeko egokiagoak izango direlakoan. Azal meheko arabi sagarra eta almidoi gutxiko patata dira, besteak beste, lortu nahi diren barietate berriak. Ontto hibridoak ere eskuratu nahi dituzte, zeren eta gezurra badirudi ere, Frantziako INRA erakundearen perretxikoak gurtzatzea lortu baitute.



Estatu Batuetako eta Frantziako ikerketa-laborategi batzuetako saiakuntzen bidez lortu dute irudiko aza erraldoia.

### Errauts toxikoen errautsak

Bretainiako Brest hirian instalazio berria ipini dute errauts toxikoak tratatzeko. Europan mota honetako lehena da eta geruza freatikoen kaltegarri diren errauts toxikoak (beruna, merkurioa, kadmioa, etab. dituztenak) murriztu egiten ditu. 6.000 tona hondakin tratatu ondoren, azkenean bi tona besterik ez dira geratzen. Sistema honen bidez errautsak birkristalatu egiten dira eta lortzen den produktua industria kimikoan erabili daiteke.

### Floridako dortokak

Europan eta munduko herri askotan Floridako dortokak (*Trachemys scripta elegans* izenekoak) erruz erosten dituzte jendeak etxean edukitzeko. Azkenaldian asko ugaltzen dira eta kalterik ez dutela sortzen pentsatu izan da. Praktikan besterik gertatzen da ordea. Dortoka horietako asko ibaian edo lakuan uzten du jabeak aspertzen denean eta uretako fanunaren harropakari bihurtzen dira, ekosistemako oreka hautsiz.

### Ekialdeko Alemaniako poluzioa

Garai bateko Alemaniako Errepublikakoan 70.000 leku daude garbitzeko, hango utzitako industrialde eta zenbait zonatako isurketak direla eta. 1,7 bilioi pezeta (edo 50 mila milioi libera) gastatu behar dituzte hurrengo bost urteetan, lurreko eta geruza freatikoen poluzioa kontrolatu ahal izateko.

